



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzarretxean sartu dan haretxaren landareak bermatu egiten dau Gernikako Arbolearen leinuaren jarraipena

Gernikan, 2015eko martiaren 2an

Martiaren 2a egun seinalatua izango da aurrerantzean Gernikako Batzarretxean. Gogoratua izango da egun horretan sartutako 15 urteko haretx landareak jarraipena emongo deutsalako mendeetako leinuari. Euskaldunen ikurrik unibertsalena gaztetu egin da, baina izpirituak bere horretan jarraitzen dau, sendo. Haretxaren garrantzi historikoa agerian geratu da gaurko ekitaldian, Euskadiko erakunde-ordezkaritza gorena egon da-ta.

Ordezkarion artean nabarmendu egin behar dira Iñigo Urkullu Lehendakaria, Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria, José Luis Bilbao Bizkaiko Ahaldu Nagusia, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarburua eta José María Gorroño Gernikako Alkatea. Eurokaz batera, erakundeetako hainbat eta hainbat ordezkari eta agintari politiko: Lehendakari ohiak, (José Antonio Ardanza eta Patxi López), Arabako eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako Lehendakariak (Juan Antonio Zárata eta Lohitzune Txarola), Ahaldu Nagusi ohiak José Alberto Pradera, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakari ohiak Aitor Esteban eta alderdi politiko guztietako agintariak.

Bertaratu diran guztiok ikusi ahal izan dabe zelan bota deutsiezan lehenengo lur-palakadak haretx-landareari Lehendakariak, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak, Bizkaiko Ahaldu Nagusiak, Legebiltzarburuak eta Gernikako Alkateak. Horreen ostean, Batzar Nagusietako batzarkideak eta beste erakunde-ordezkariek batzuk gauza bera egin dabe. Horrezaz ganera, ohitureari jarraituta, kutxa bat lurperatu da landereagaz batera, horren barruan sartu dirala eguneko egunkariak, txanpoiak, Arbolearen aurrean erakunde-ordezkariek sinatutako ziurtagiria eta ikurriña bat.

Euskal alderdi politiko esanguratsu ordezkari moduan hurrengook etorri dira, EAJtik, Andoni Ortuzar, Itxaso Atutxa, Juan María Aburto, Nekane Alonso eta Ibone Bengoetxea; EH Bildutik, Josu Imanol Unanue eta Julen Calzada; PSEtik José Antonio Pastor, Carlos Totorika, Mikel Torres y Josu Montalbán; eta PPTik, Antón Damborenea, Nerea Llanos, Leopoldo Barreda eta Carlos Olazábal.

Ekitaldi xumea eta hitzaldi bakoa, agintariak heldu diranean hasi dana “Alkate Soinua” entzuten zan bitartean. Hori eta gero, Gaudeamus abesbatzak “Agur jaunak” abestu dau. Ostean, ekitaldiaren gidari-lanetan ibili dan Xabier Euskitzek ongi etorria emon deutse bertaratuei, eta barriri be entzun da abesbatza Mikel Laboaren “Baga, biga, higa” abestian oinarritutako “Ikimilimilikik” kantea abesten. Bertsolari eta txistulariek be aritu dira 35 minutu eskas iraun dauen ekitaldian, euskal askatasunen ikur dan Arbolearen inguruan egindako ekitaldian.

Beti Jai Alai taldeko zazpi dantzari bikotek dantza egin dabe Arbolearen inguruan, Euskal Herriko zazpi herrialdeetako janzkereagaz, “Loreak Udan” abestia entzun aurretik. Harrizko zin egiteko mahaian aginteriek ziurtagiria sinatu ondoren, dantzari bikote batek lokarria jarri deutso agiriari eta kutxan sartu, eta horretarako egindako zuloan sartu dabe kutxa hori. Lehenengo lur-



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

palakadak botaten hasi dira agintariak, “Gernikako Arbola” eta “Euzko Abendaren Ereserkija” abestiak entzun diran bitartean.

MILEURTEKO BARRIAN ERNETAKO HARETX LANDAREA

Teknikariek emondako aholkuei men egin eta Bizkaiko Batzar Nagusiek egun hau aukeratu dabe Gernikako Haretx barria —Euskal Herriaren eta euskal askatasunen ikurra— sartzeko ekitaldirako.

Aukeratutako landarea XXI. mendean jaiotakoa da —2000. urteko belaunaldikoa da— eta aurreko Haretxaren ezkur batetik ernetakoa da. 2005eko zezeilaren 25ean sartu zan Haretxaren anaia da eta 1858. urtean sartu zan haren semea eta, beraz, “Haretx Zaharraren” bilobea, gaur egun Batzarretxeko lorategietan dagoan tenpletean fosilizaturik ikusi geinkena. Hori baino zaharragoa zanari “Aita Haretxa” eritxen; XIV. mendearen erdialdean sartu ei eben eta 450 urte inguru bizi izan zan.

Aukeratu dan haretx gazteak Arratian dagoan foru basoan emon ditu azken urteak, “quercus robur” espeziaren landarak osasuntsu hazteko baldintzarik egokienak dituan leku baten. Lehenengo urte bietan Basalan foru enpresek Bilbotik hur daukan mintegian egon zan ondo zainduta. Leku horretan urtero Gernikako Haretxaren 400 ezkur inguru hazten dira. Hamabost urte zainduta eta kalidade kontrol estuak izanda egon ostean, 4 metroko garaiera hartu dau Foru Uribildura ekarriko dan zugatzak.

Gernikako Haretxa izango dana aurrekoak baino metro batzuk aurrerago egongo da, hazteko espazio horizontal gehiago izan dagian. Teknikariek kontu handia izan dabe drenajea hobetzen, material irazkorren zenbait geruza jarritz (neurri ezbardineko harri-koxkorren hiru geruza, harea geruza bat eta lur geruza bat). Ura atarateko ponpa batek eta lurpean jarritako hodi batzuk bermatu egiten dabe ura ez metatzea, zugatza ahalik eta baldintzarik onenetan sendo eta osasuntsu hazi dedin.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

El joven roble plantado en la Casa de Juntas garantiza la continuación de la estirpe del Árbol de Gernika

Gernika, a 2 de marzo de 2015

El 2 de marzo de 2015 ha pasado ya a los anales de la Casa de Juntas de Gernika. Será recordado como el día en el que un joven roble de 15 años continuó el camino iniciado por sus antecesores hace siglos. El símbolo más universal de los vascos rejuvenece de aspecto, pero mantiene su espíritu intacto y robusto. Su relevancia histórica ha quedado patente hoy en un acto que ha contado con la más alta representación institucional de Euskadi.

Encabezados por el Lehendakari, Iñigo Urkullu, la Presidenta de Juntas Generales, Ana Madariaga, el Diputado General de Bizkaia, José Luis Bilbao, la Presidenta del Parlamento, Bakartxo Tejeria y el Alcalde de Gernika, José María Gorroño, el encuentro interinstitucional de respeto y homenaje al recién llegado, ha atraído hasta la sede del Parlamento de Bizkaia a decenas de representantes institucionales y líderes políticos. Entre los invitados, se encontraban exlehendakaris (José Antonio Ardanza y Patxi López), presidentes de las Juntas Generales de Araba y Gipuzkoa (Juan Antonio Zárate y Lohitzune Txarola), el exdiputado general José Alberto Pradera, el expresidente de la Cámara vizcaína Aitor Esteban y dirigentes de todos los partidos vascos.

Sin perder detalle, los asistentes han sido testigos de las primeras paladas de tierra echadas por el Lehendakari, la Presidenta de Juntas Generales, el Diputado General, la Presidenta del Parlamento Vasco y el Alcalde de Gernika. Tras ellos, les han seguido, uno a uno, los apoderados del parlamento vizcaíno y otros representantes institucionales. Siguiendo también con la tradición, se ha enterrado una "kutxa" con los periódicos del día, monedas en uso, un acta firmada por los representantes institucionales y una ikurriña.

En representación de las principales formaciones políticas vascas, han acudido los jeltzales Andoni Ortuzar, Itxaso Atutxa, Juan María Aburto, Nekane Alonso o Ibone Bengoetxea; los miembros de EH Bildu Josu Imanol Unanue y Julen Calzada; los socialistas José Antonio Pastor, Carlos Totorika, Mikel Torres y Josu Montalbán; y los populares Antón Damborenea, Nerea Llanos, Leopoldo Barreda y Carlos Olazábal.

El acto, sencillo, emotivo y carente de discursos, ha comenzado con la llegada de las autoridades escuchando los sonos de "Alkate Soinua", seguido después del "Agur Jaunak", interpretado por la coral Gaudeamus de Gernika. Tras el saludo de bienvenida del conductor del acto, Xabier Euskitze, el coro ha interpretado "Ikimilimilikik" basado en el "Baga, biga, higa" de Mikel Laboa. Versos y txistularis han servido de entronque en un encuentro de enorme carga simbólica, de apenas 35 minutos de duración, en el que se sucedían los acontecimientos alrededor del símbolo de las libertades y del pueblo vasco.

Siete parejas de dantzaris del Beti Jai Alai, con vestimentas de los siete territorios de Euskal Herria, han bailado alrededor del Árbol, como preludeo del "Loreak Udan". Tras la firma del acta por parte de las autoridades, una pareja de dantzaris ha anudado el lazo del acta y cerrado la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

kutxa, depositándola después en el lugar donde las autoridades han echado sus primeras paladas, mientras sonaba de fondo el “Gernikako Arbola” y el “Euzko Abendaren Ereserkija”.

UN ÁRBOL NACIDO YA EN EL NUEVO MILENIO

Siguiendo los consejos de los técnicos, las Juntas Generales de Bizkaia han reservado este día de invierno, a escasas semanas de iniciarse la primavera, para realizar la plantación del ejemplar de 15 años que seguirá la estirpe histórica del Árbol de Gernika.

El retoño es hermano del anterior e hijo también del que le precedió – conocido como el Árbol “Hijo”. Nacido ya en el siglo XXI –cosecha del año 2000-, desciende genéticamente por bellota del anterior roble. Es hermano del que se plantó el 25 de febrero de 2005, el cual sustituyó al roble que fue fijado en 1858 y que sobrevivió al bombardeo de Gernika, sustituyendo éste al “Árbol Viejo” cuyo tronco fosilizado se conserva en el templete del jardín de la Casa de Juntas. Antes, las referencias hablan del “Árbol Padre” que habría sido plantado a mediados del siglo XIV y habría vivido 450 años.

Antes de alcanzar su lugar de honor, el retoño elegido ha pasado sus últimos años en un bosque foral situado en Arratia, en un lugar que cumple condiciones óptimas para que los “quercus robur” crezcan vigorosos y con salud de hierro. Hasta los dos años de edad, recibió los cuidados en un vivero de la empresa foral Basalan cercano a Bilbao, en donde se cultivan anualmente unas 400 bellotas de roble del Árbol de Gernika. Tras quince años de cuidados y rigurosos controles de calidad, el ejemplar ha sido trasplantado junto a la tribuna juradera de la Casa de Juntas de Gernika portando ramas y tronco que se elevan por encima de los 4 metros de altura.

La ubicación del Árbol de Gernika se ha desplazado unos metros respecto a sus parientes, para que sus raíces se desplieguen con menos condicionantes físicos. Los técnicos han tenido especial cuidado en mejorar el drenaje, colocando distintas capas de materiales permeables (tres capas de gravilla de diferentes grosoros, una capa de arena y otra de tierra). Una bomba de achique y canalizaciones subterráneas garantizarán que el agua no se estanque y que el ejemplar pueda crecer en las mejores condiciones.